

EXCMO. SR.:

Tengo el honor de comunicar a V.E. que el Gobierno Vasco, en Sesión celebrada el día 25 de octubre de 2003, ha procedido a la aprobación de la **Propuesta de Estatuto Político de la Comunidad de Euskadi**.

Lo que certifico y, en cumplimiento de lo acordado por el Gobierno, traslado a V.E., de conformidad con lo exigido por el artículo 46.1 a) del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 25 de octubre de 2003.

Fdo.: Idoia Zenarrutzabeitia Beldarrain.  
VICEPRESIDENTA  
Y SECRETARIA DEL GOBIERNO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

JAUURLARITZAKO LEHENDAKARIORDETZA  
Jaurlaritzako Idazkartzako eta  
Legelari-buruzagien Hartumatarako Zuzendaritza  
VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO  
Dirección de la Secretaría del Gobierno  
y de Relaciones con el Parlamento

25 OCT 2003

SARRERA	IRTEERA
	Zkia


EXCMO. SR. PRESIDENTE DEL PARLAMENTO VASCO.

CERTIFICO:

ALDAKETA-PROPOSAMEN hau, Eusko Jaurlaritzak 2003-10-25n egindako bilkuran ONARTU zuen.

La presente PROPUESTA DE REFORMA fue APROBADA por el Gobierno Vasco en sesión celebrada el día 25-10-2003.

Jaurtaritzako Idaskaria,  
La Secretaria del Gobierno,



*[Handwritten signature]*  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN



# **EUSKADIKO Erkidegoaren ESTATUTO POLITIKOAREN Proposamena**

**Ajuria-Enea, 2003ko urriaren 25a**

# EUSKADIKO ERKIDEGOAREN ESTATUTU POLITIKOA

## AURKIBIDEA

### -ATARIKOA

### -ATARIKO TITULUA

#### **-I. TITULUA.- ESPAINIAKO ESTATUAREKIKO HARREMAN POLITIKORAKO ARAUBIDEA ETA BERMEAK**

Lehenengo kapitulua.- Elkartasun askeko estatusa

Bigarren kapitulua.- Autogobernuaren bermeak

Hirugarren kapitulua.- Estatutu politikoa aldatzea eta eguneratzea

#### **II. TITULUA.- EUSKADIKO ERKIDEGOAREN AGINTEAK**

Lehenengo kapitulua.- Aginte legegilea. Eusko Legebiltzarra.

Bigarren kapitulua.- Aginte betearazlea. Eusko Jaurlaritzza eta Lehendakaria

Hirugarren kapitulua.- Aginte judiziala. Euskal Kontseilu Judiziala

#### **-III. TITULUA.- EUSKADIKO ERKIDEGOAREN EREMUKO HARREMAN POLITIKO ETA INSTITUZIONALEKO ARAUBIDEA**

Lehenengo kapitulua.- Euskal instituzioak

Bigarren kapitulua.- Institutuzionalizazioa eta barne-harremanak

#### **IV. TITULUA.- EUSKADIKO ERKIDEGOKO AGINTE PUBLIKOAK ERABILTZEA**

Lehenengo kapitulua.- Euskal Autogobernua erabiltzea

Bigarren kapitulua.- Aginte publikoak erabiltzeko araubide orokorra

Hirugarren kapitulua.- Estatuaren politika publiko eskusiboak

Laugarren kapitulua.- Euskadiko Erkidegoaren politika publiko eskusiboak

1. atala.- Araubide orokorreko politika publiko eskusiboak

2. atala.- Araubide bereziko politika publiko eskusiboak

#### **-V TITULUA.- EUSKADIKO ERKIDEGOKO EKONOMIA, OGASUNA ETA ONDAREA**

Lehenengo kapitulua.- Ekonomiaren eremuan aginte publikoak erabiltzea

Bigarren kapitulua.- Euskadiko ekonomiaren eta finantzen antolamendua

Hirugarren kapitulua.- Euskadiko ogasuna eta ondarea

#### **-VI. TITULUA.- EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO EREMUAREKIKO HARREMAN POLITIKORAKO ARAUBIDEA**

Lehenengo kapitulua.- Europarekiko harremanak

Bigarren kapitulua.- Kanpo-harremanak

Hirugarren kapitulua.- Garapenerako lankidetzak

**-XEDAPEN IRAGANKORRA**  
**-AZKEN XEDAPENA**

## ATARIKOA

*Euskal Herria Europako herri guztien artean berezko nortasuna duen herria da, historia, gizarte eta kulturako aparteko ondare baten gordailu, eta gaur egun bi estatutan kokatutako hiru eremu juridiko-politiko ezberdinetan giltzatutako zazpi lurraldetan du bere leku geografikoa.*

*Euskal Herriak eskubidea du bere etorkizuna erabakitzeko, Eusko Legebiltzarrean 1990eko otsailaren 15ean gehiengo osoz onartu zen bezala, eta nazioartean onetsitako herrien autodeterminazio-eskubidearekin bat etorritik, besteak beste, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean eta Ekonomia, Gizarte eta Kulturako Eskubideen Nazioarteko Itunean.*

*Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea erabiltzea, egun eremu juridiko-politiko ezberdinetan giltzatuta dauden herritarrek, gizonezko zein emakume, beren etorkizuna erabakitzeko kontsultatuak izateko duten eskubidea errespetatuz gauzatzen da. Hau da, egungo Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren erabakia errespetatuz, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren erabakia errespetatuz, eta Iparraldeko euskal lurraldeetako –Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa- herritarren erabakia errespetatuz.*

*Hiru zutabe horiekin bat etorritik, eta Euskal Herriko zati osagarri garenez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeek osatutako egungo Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritarrok, gizonezko zein emakume, geure borondate demokratikoa erabiliz eta Gernikako Estatutuan eta Espainiako Konstituzioan jasotako gure eskubide historikoak errespetatuz eta eguneratuz, elkarbizitzarako itun politiko berri bat gauzatzeko geure borondatea adierazten dugu.*

*Itun politiko hau Espainiako Estatuarekiko harremanerako eredu berri batean gauzatzen da, elkartasun askean oinarrituta eta estatu konposatu, nazio anitzeko eta asimetriko bat garatzeko aukerekin bateragarria.*

*Aurreko guztiaren ondorioz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrok, gizonezko zein emakumeok, hau da berresten duguna:*

# ESTATUTU POLITIKOA

## ATARIKO TITULUA

### 1. artikulua.- Euskadiko Erkidegoa

Euskal Herriaren zati osagarri direnez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal lurraldeek, eta baita bertako herritarrek ere, gizon zein emakume, antolaketarako eta harreman politikoetarako beren esparru propioa askatasunez eta demokrazia-arauz erabakitzeke duten eskubidea erabiliz, beren naziotasunaren adierazgarri eta autogobernua bermatzeko, Espainiako Estatuarekin askatasunez elkartutako euskal Erkidego gisa eratzten dute beren burua, Euskadiko Erkidego izenarekin.

### 2. artikulua.- Lurraldea

1. Euskadiko Erkidegoaren lurralde-esparruak gaur egun Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoek osatzen dituzten egungo mugarteei dagozkien geografiako eta administrazioko mugak hartzen ditu.

2. Demokrazia-printzipioaren errespetuaren baitan, Euskadiko Erkidegoari atxiki ahal izango zaizkio, lurralde horren barruan osorik egonik, askatasunez eta demokrazia bertan sartzearen alde ager daitezen lurralde-lekuneak, baldintza hauek betez gero:

- a) Interesa duten udalek eska dezatela bertan sartzea.
- b) Lurralde-lekune horretako udalerrietako biztanleek hala erabaki dezatela horretarako bereziki deitutako erreferendum bidez eta emandako baliozko botoen gehiengoz onartuta.
- c) Eusko Legebiltzarrak eta Estatuko Gorte Nagusiek hori onar dezatela.

### 3. artikulua.- Ikurrak

1. Euskadik bere nazio-nortasuna irudikatzeko bere ikur bereziak izango ditu, bai barruan zein kanpoan. Eusko Legebiltzarrak lege bidez arautuko ditu ikur politikoen erabilera eta lehentasunak Euskadin.

2. Euskal Herriko ikurrina gurutze biko da, hondo gorrian zeharkako gurutze berdea eta gainean gurutze zuria dituena. Orobat onartzen dira Euskadi osatzen duten lurralde historikoen bandera eta ikur bereziak.

3. Eusko Legebiltzarrari dagokio Euskadiren zein bere instituzio propioen hizkuntza-izendapenari buruz egoki iritzitako aldaketak onartzea. Era berean, bertako lurralde historiko bakoitzeko instituzioei dagokie Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren eta beren foru-erakundeen hizkuntza-izendapenei buruz egoki iritzitako aldaketak onartzea.

#### **4. artikulua.- Euskal herritartasuna eta naziotasuna**

1. Euskal herritartasuna dagokie Euskadiko Erkidegoko udalerrietakoren batean administrazio-auzotasuna duten pertsona guztiei. Euskal herritar guztiek, gizonezko zein emakume, inolako bereizkeria-motarik gabe, estatutu honek eta indarrean dagoen antolamendu juridikoak onartutako eskubide eta betebeharrak izango dituzte Euskadiko Erkidegoan.

2. Ofizialki onartzen zaie euskal naziotasuna euskal herritar guztiei, Espainiako Estatuaren nazio-aniztasunarekin bat. Euskal naziotasuna lortu, gorde eta galtzea, baita bera egiaztatzea ere, Eusko Legebiltzarreko lege batek arautuko ditu, Estatuko legeetan Espainiako naziotasunerako eskatutako eskakizun berberei lotuta, eta berdin bataren zein bestearen gozamina edo egiaztapena bateragarriak izango dira eta legeetan zehaztutako ondorio juridiko guztiak sortuko dituzte.

3. Inori ere ez zaio bereizkeriarik egingo bere naziotasuna dela-eta, eta nahierara kendu ere ez zaio egingo bere naziotasuna.

#### **5. artikulua.- Atzerriko euskaldunak**

1. Euskadiko Erkidegoan beren azken administrazio-auzotasuna izan eta kanpoan bizilekua duten pertsona guztiek, baita horien ondorengoek ere, eskatzen badute, bai euskal naziotasunaz zein euskal herritarrei dagozkien eskubide politikoez gozatu ahal izango dute, legeek xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren aurka jarri gabe, kanpoan dauden euskal giza talde eta zentroetako kideekin gizarte, ekonomia eta kulturako loturak sustatuko dituzte euskal instituzioek, ikuspegi orokorra erabiliz. Eusko Legebiltzarraren lege batek arautuko ditu horiekiko harremanak, baita egokiak iritzitako eskubideak eta prestazioak ere.

3. Kanpoan dauden euskal giza taldeetako kideei beharrezko laguntza eman ahal izateko, euskal instituzioek lankidetzarako hitzarmenak eta itunak gauzatu ahal izango dituzte taldeok kokatuta dauden herrialdeetako instituzio publiko zein pribatuekin.

#### **6. artikulua.- Nafarroako Foru Komunitatearekiko harremanak.**

1. Euskadiko Erkidegoak eta Nafarroako Foru Komunitateak beren herritarren garapenerako eta gizarte, ekonomia eta kulturako ongizaterako egokien irizten dizkieten lotura politikoak eta barne-harremanak ezarri ahal izango dituzte udalerrri-mailan eta lurralde-mailan, muga bakarra herritarren beren borondatea dela, erkidego biotako ordenamendu juridikoen arabera adierazi eta berretsita.

2. Ondorio horietarako, erkidego bien artean lankidetzako hitzarmenak eta akordioak egin ahal izango dira elkarren intereseko esparruak garatu eta kudeatzeko, baita lankidetzako tresna erkideak ezartzeko aukera bera ere, horrela onartzen badute autogobernuko bataren eta bestearen instituzioek. Estatuak errespetatu egingo du

nolanahi ere erkidego bien artean lankidetzako hitzarmenak eta akordioak egitea, eta, beraz, esandako harreman horiei ez zaie aplikatuko Konstituzioko 145. artikuluan xedatutakoa.

3. Etorkizunean Euskadiko Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko herritarrek askatasunez erabakitzen badute egitura politiko bateratu bat eratzea, antolaketarako eta harreman politikoetarako eremu berri bat egituratzeko negoziazio politikorako prozesu bat ezarriko da bataren eta bestearen instituzioen artean, elkarren adostasunaz; eta azkenean, erkidego bietako herritarrek berretsi beharko dute.

## **7. artikulua.- Iparraldeko euskal lurraldeekiko harremanak**

Europar Batasunaren esparruan, Pirinioetako bi aldeetara kokatutako euskal lurralde eta giza taldeek, mugaz haraindiko lankidetzako egungo zein etorkizuneko araudiak eskainitako aukerak ahalik eta erarik zabalren eta hedatuenean erabili ahal izateko beharrezko akordioak eta itunak sinatzea sustatuko da, Euskadiko Erkidegoaren eta Frantziako Estatuan kokatutako euskal lurralde eta giza taldeen artean historia, gizarte eta kulturako lotura bereziak estutzeko, udalerrri-mailako eta lurralde-mailako lankidetzarako tresnak ezartzeko gaitasuna barne dela, alde bakoitzeko herritarren borondatea errespetatuz.

## **8. artikulua.- Euskara**

1. Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute hizkuntza biok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

2. Euskal instituzioek, aniztasun sozio-linguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute, bion ofizialtasuna arautuz, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.

3. Inor ere ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.

4. Euskarari dagozkionetan Euskaltzaindia instituzio aholku-emaile ofizial da.

5. Euskara beste euskal lurralde eta giza talde batzuen ondare den aldetik eta erakunde akademiko eta kulturakoak izan ditzaten harreman eta loturez gain, Euskadiko Erkidegoak lurralde eta giza talde horiekin kulturazko harremanak bideratzeko itun-hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu, euskara zaindu eta bultzatze aldera.

## **9. artikulua.- Euskal Autogobernuaren balioak**

Euskal autogobernuaren erabilera arautuko duten balioak askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa dira; horrez gain, giza eskubideak aitortzen dituzten nazioarteko kanonetan jasotako oinarritzko eskubide eta betebeharren aitorpena eta bermea; eta sistema politiko demokratikoaren eta zuzenbide-estatuaren funtsezko printzipioak.

## **10. artikulua.- Giza eskubideak eta askatasunak**

1. Eusko Legebiltzarrak, euskal autogobernuaren balioekin bat etorriz, eta kontuan hartuta pertsona guztien giza eskubideak eta askatasunak defendatu eta babesteak duen lehentasuna, euskal herritarren Eskubide eta Betebehar Zibil eta Politikoen Gutuna egingo du lege baten bidez.

2. Era berean, Eusko Legebiltzarrak lege batekin arautuko du Giza Eskubideen eta Betebeharren Euskal Behatoki bat sortzea, pertsona guztien giza eskubideak eta askatasunak bereizkeriarik gabe defendatzeko tresna independentea izateko.

## **11. artikulua.- Euskal herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak**

1. Euskal herritarrak Konstituzioan ezarritako oinarrizko eskubide eta betebeharren jabe dira; Europar Batasuneko itunetan ezarritako eskubideak eta betebeharrak, Europako herritar direlako dagozkienak; eta nazioartean onartutako gizabanakoen eta giza taldeen giza eskubideak, eta zehazki, berariaz Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean, Ekonomia, Gizarte eta Kulturako Eskubideen Nazioarteko Itunean eta Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean jasotakoak.

2. Euskal aginte publikoek, beren eskumenen esparruan:

a) Herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.

b) Politika, ekonomia, kultura eta gizarteko euskal bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute.

c) Norbanakoen eta giza taldeen askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurriak hartuko dituzte.

d) Bizitzako eta laneko baldintzak hobetzeko politika bultzatuko dute bereziki.

e) Enplegua gehitu eta ekonomiaren egonkortasuna sustatzeko neurriak hartuko dituzte.

f) Bere barruan dauden gutxiengoaren eskubideen errespetua bermatuko dute.

3. Euskadiko Erkidegoaren eremuan, euskal instituzioei ezartzen zaie politika, ekonomia eta gizarteko bizitzan herritarren ordezkapena eta alderdi politikoen, langileen sindikatuen eta enpresaburuen elkarten bidez bizitza horretan parte hartzea bermatzen dituzten oinarrizko eskubide eta betebeharrak erabiltzeari dagokionez Konstituzioa garatzea.

Ondorio horietarako, Eusko Legebiltzarrak lege batez ezarriko du Euskadiko Erkidegoko alderdi politikoak, langileen sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak sortu, onartu, antolatu eta iraungitzeko araubidea. Estatuko lege organikoek horiek Estatuko Administrazioaren instituzio eta organoen aurrean ordezkaritza eta partaidetza berezitua izatea bermatuko dute.

4. Euskadiko Erkidegoari dagokio Ararteko instituzioa sortu eta arautzea, Eusko Legebiltzarren lege baten bidez, berak izendatu eta berari atxikitako organo berezi bezala, herri-administrazioen jarduera ikuskatuz euskal herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak defendatzeko; eta Legebiltzarrari berari eman behar dizkio kontuak Arartekoak.

## **I. TITULUA.- ESPAINIAKO ESTATUAREKIKO HARREMAN POLITIKORAKO ARAUBIDEA ETA BERMEAK**

### **Lehenengo kapitulua.- Elkartasun askeko estatusa**

#### **12. artikulua.- Elkartasun askeko araubidea**

Euskadiko Erkidegoko herritarrek, beren borondatearen arabera eta Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarrian jasotako eskubide historikoak errespetatuz eta eguneratuz iristen dute autogobernua, Espainiako Estatuarekiko harreman politikorako araubide berezi baten bidez, elkartasun askean oinarrituta, elkarrenganako errespetutik eta elkarren onarpenetik abiatuta, Estatutu Politiko honetan ezarritakoaren arabera, eta esandako ondorioetarako estatutu hori izango da oinarrizko arau instituzionala.

Elkartasun Askeko Araubide hau onartzeak ez dakar Euskal Herriaren eskubide historikoei uko egiten zaienik, eta une oro eguneratu egin ahal izango dira herriaren borondate demokratikoaren arabera.

#### **13. artikulua.- Erabakitze eskubidea demokraziaz erabiltzea**

1. Euskal herritarrek askatasunez erabakitze eskubidea demokraziaz erabiltzeko ondorioetarako, hortik dator-eta Estatutu honen zilegitasun demokratikoa, Euskadiko Erkidegoko instituzioek erreferendum bidez euskal herritarrei kontsulta demokratikoak egitea arautu eta kudeatzeko ahala daukate, bai beren eskumenen eremuko gaiei dagokienean zein Euskal Herriko beste lurralde eta giza talde batzuekin izan nahi dituzten harremanei dagokienean, bai eta Espainiako Estatuarekiko eta bertako autonomia-erkidegoekiko harremanei eta Europako eta nazioarteko eremuko harremanei dagokienean ere.

2. Euskadiko Erkidegoko instituzioek Eusko Legebiltzarraren lege bidez arautuko dute bere lurralde-eremuan erreferendum bidez kontsultarako eskubidea erabiltzea, eta horretarako, moldeak, kasu bakoitzean jarraitu beharreko prozedura, emaitzen baliotasunerako baldintzak eta emaitza horiek ordenamendu juridikoan sartzea ezarriko dute.

3. Euskal herritarrek berariaz jarritako kontsultaren aurrean beren erabaki askea demokraziaz erabilita, beren borondate argi eta zalantzarik gabea adierazten dutenean estatutu honetan araututako Espainiako Estatuarekiko harreman politikoaren eredia eta araubidea osorik edo funtsean aldatzeko, baita Europako eta nazioarteko eremuko

harremanak aldatzeko ere, euskal instituzioek eta Estatuarenek konpromisoa hartuta izango dute euskal gizartearen borondate demokratikoa adostasunez gauzatzeko aukera emango duten baldintza politiko berriak ezartzearen alde negoziazio-prozesu bat bermatzeko.

## **Bigarren kapitulua.- Autogobernuaren bermeak**

### **14. artikulua.- Estatuarekiko harreman politikorako printzipioak**

Estatutu honetan Euskadiko Erkidegoaren eta Espainiako Estatuaren arteko harremanetarako jasotako araubidea instituzioen arteko elkarrekiko leialtasun-printzipioan, lankidetzaren printzipioan eta aginteen arteko oreka-printzipioan oinarritzen den berme juridikoen araubide bat ezartzeari lotzen zaio.

Harremanen araubide honen itun politiko izaeraren eraginez, estatutu honetan ezarritako lankidetzako eta gatazkei aurrea hartzeko tresna guztiak agortu beharko ditu Estatuak. Ondorioz, ez da Estatuak aldebakarretik aplikatzekoa izango Konstituzioko 155. artikuluan aurreikusitakoa, eta ezin izango da, era berean, aldebakarretik agindu Euskadiko Erkidegoarentzat nahitaez bete beharreko hertsatzeko neurririk ere.

### **15. artikulua.- Euskadi-Estatua Bitariko Batzordea**

1. Orokorrean, Estatuak eta Euskadiko Erkidegoak aldez aurreko kontsultabidea erabiltzea bermatuko dute, baita lankidetzaren gutunak ere, instituzioek elkarri bata bestearen jarduerak harmonizatzeko eta gerta litezkeen gatazka-egoerei aurrea hartzeko beharrezko informazioa eta lankidetzaren eskatzeko askatasunez zuzendu diezazkieketen errekerimenduak dira-eta.

2. Euskadi-Estatua Bitariko Batzordea sortzen da, Estatuako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak izendatutako ordezkari-kopuru berdinez osatuta. Orokorrean gobernuen arteko lankidetzarako instituzio-harremanez jardungo du, eta prozedura berezi hauen aplikazioa harmonizatu beharko du:

a) Oinarrizko eskubide eta betebeharren garapenari eragiten dioten lege-proiektuak ezagutu eta horien gaineko txostenak egitea.

b) Gorte Nagusietan edo Eusko Legebiltzarrean araugintzako lankidetzarako errekerimenduak kudeatzea, legeak, arau-xedapenak edo lege-indarreko egintzak izapidetzean Estatuaren eta Euskadiko Erkidegoaren arteko harremanen eta eskumen-banaketaaren araubidea urra daitekeela nabaritzen bada.

3. Bitariko Batzorde horri dagozkio, halaber, kanpo-harremanen arloko jardueren koordinazioa eta jarraipena.

4. Euskadi-Estatua Bitariko Batzordeak, bere eginkizunak betetzerakoan, estatutu honetan aurreikusitako politika eta gai zehatzetarako beste koordinazio-erakunde berezi batzuen aurka jarri gabe jardungo du.

## **16. artikulua.- Euskadi eta Estatuaren arteko Gatazken Auzitegia**

Konstituzio Auzitegiaren antolamendu juridiko eta prozesalerako neurri berezi hauek ezartzen dira Euskadiko Erkidegoarekiko:

1. Konstituzio Auzitegiko Sala Berezi berri bat sortzen da, Euskadi eta Estatuaren arteko Gatazken Auzitegi bezala eratuko dena, eta Euskadiko Erkidegoko instituzio eta agintekiko piztu daitezkeen konstituzio-kontrakotasuna adierazteko prozedurez eta konstituzio-gatazkez arduratuko da, eta horretarako bereganatu egingo ditu aipatutako ahalen artean Auzitegiari osoko bilkuran dagozkionak.

2. Konstituzio Auzitegiko Sala Berezia, Euskadi eta Estatuaren arteko Gatazken Auzitegi bezala eratu, sei magistratuz osatuko da. Lehenengo hirurak auzitegiak izendatuko ditu osoko bilkuran, Senatuak proposatuta, auzitegiko kide diren magistratuen artean. Beste hirurak izendapen berrikoak izango dira euskal juristen artetik; izendapena Erregeri dagokio Eusko Legebiltzarraren proposamenaren gainean, eta auzitegiko magistratuek besteko gaitasuna eskatuko zaie jurista moduan. Sala Berezioko lehendakari bertako magistratu batek jardungo du, txandaka, kalitate-botoz.

3. Eskumen-gatazka negatiboaren prozedura berri bat ezartzen da Konstituzio Auzitegirako, eta bertan Eusko Jaurlaritza izango da auzi-jartzaile eta Estatuko Gobernuaren organo errekeritu, Konstituzioak zein legeek Euskadiko Erkidegoarekiko ematen dizkieten eskurantzak erabiltzeko eskumenik gabeko aitortzen duenean bere burua azken horrek. Auzitegiaren epaiak, edo errekerimenduaren bidezkotasunik eza aitortzeko, edo horren bidezkotasuna aitortzeko, eta azken kasu horretan epe bat ezarriko du errekeritutako eskurantza epe horretan erabiltzeko.

4. Euskadiko Erkidegoko agintek eta instituzioek konstituzio-ekintza bat aurkeztu ahal izango diote Gatazken Auzitegiari, parte izan ez diren prozesuetan emandako epaiak euskal autogobernuari eragiten ote dioten ebatzeko. Epai horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabeteko epean alegazio-idazki bakar baten bidez alegatuko dira, epaiak Euskadiko Erkidegoaren eremuan ondoriozko sorrarazten ote duen erabaki dezan Euskadi eta Estatuaren arteko Gatazken Auzitegiak.

5. Estatutu politiko honen eraginez, euskal instituzioak parte diren konstituzio-prozeduretan bereziki bermatu behar da aginteen arteko orekaren printzipioa, euskal instituzioek onartutako arau-xedapenen eta erabakien aurka Estatuko Gobernuak egiten duenean, berehala eta besterik gabe etenda gera ez daitezela, Konstituzioko 161.2 artikulua orokorrean aurreikusi bezala.

## **Hirugarren kapitulua.- Estatutu politikoa aldatzea eta eguneratzea**

### **17. artikulua.- Aldatzeko eta eguneratzeko prozedura**

Erabakitzeko eskubidea demokraziaz erabiltzea arautzean ezarritako berezitasunen aurka jarri gabe, hona estatutu politiko hau aldatu eta eguneratzeko jarraituko den prozedura:

- a) Ekimena Eusko Legebiltzarrari dagokio, legebiltzarkideen bostenaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzari, edo Estatuko Gorte Nagusiei.
- b) Proposamena Eusko Legebiltzarrak onartu beharko du, gehiengo osoz.
- c) Proposamena onartu ondoren, negoziazio-prozesu bat hasiko da euskal instituzioen eta Estatukoenen artean, eta 6 hilabeteko gehieneko epean amaitu beharko da.
- d) Lortutako akordioa, hala bada, Eusko Legebiltzarrak eta Gorte Nagusiek onartu beharko dute, eta euskal gizarteak berretsi beharko du behin betiko, Eusko Jaurlaritzak horretarako deitutako erreferendumaren bidez.
- e) Akordiorik lortzen ez bada, hasieran onartutako proposamena erreferendum bidez euskal gizarteak berresteko bidean jartzeko eska diezaioke Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari.
- f) Euskal gizarteak proposamena berresten badu, negoziazio-prozesu berri bat hasiko da Estatuko instituzioekin euskal gizartearen borondate demokratikoa ordenamendu juridikoan sartzeko.

## **II. TITULUA.- EUSKADIKO ERKIDEGOAREN AGINTEAK**

### **18. artikulua.- Euskadiren aginteak**

1. Euskadiren aginteak bertako herritarrengandik datoz, herritarrei dagokie-eta, betiere, aginteon giltzaduraren eta erabileraren legezatasuna autogobernuko beren instituzio propioen bidez.
2. Euskadiko Erkidegoak aginte legegilea, aginte betearazlea eta aginte judiziala Eusko Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren eta Lehendakariaren, eta Aginte Judizialeko Euskadiko instituzioen bidez erabiltzen ditu, lurralde historikoen foru-araubide berezia errespetatuz eta sistema demokratikoa oinarritzen duten independentziaren eta aginte-banaketaren printzipioekin bat etorritik.
3. Euskal instituzioek eta Estatuko instituzioek bakoitzak berari dagokion eremuan erabiliko dituzte beren aginteak, estatutu honetan xedatutakoarekin bat etorritik, lankidetzako eta elkarren errespetuko bitariko esparruan.

### **Lehenengo kapitulua.- Aginte legegilea. Eusko Legebiltzarra.**

#### **19. artikulua.- Eginkizunak**

1. Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Erkidegoaren ahal legegilea erabiltzen du, bertako aurrekontuak onartzen ditu eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza bultzatu eta kontrolatzen du, estatutu honek agindutako gainerako eskurantzak eta eskumenak gehituta, eta lurralde historikoetako foru-instituzioen eskurantzak eta eskumenen aurka jarri gabe.

2. Eusko Legebiltzarrari dagokio, halaber

a) Euskadiko Erkidegoaren ordezkari izango diren senadoreak izendatzea, Eusko Legebiltzarraren beraren lege batek finka dezan prozeduraren bidez, proportziosko ordezkaritza egokia ziurtatuko duena.

b) Estatuko Gobernuari lege-proiektu bat onar dezala eskatzea edota Kongresuko Mahaiari lege-proposamen bat helaraztea, Ganbera horretan aldeztuko duten legebiltzarkideak ordezkari izendatuta.

c) Konstituzio-kontrakotasunaren errekurtsua jartzea.

## **20. artikulua.- Izaera, osaera eta hautaketa-araubidea**

1. Eusko Legebiltzarra ukiezina da.

2. Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berdinez osatuko da Eusko Legebiltzarra, bozketa orokor, aske, zuzeneko eta isilpeko bidez hautatuta.

3. Lurralde historikoa da hauteskunde-barrutia.

4. Proportziosko ordezkartzaren irizpideari jarraituz egingo da hautaketa lurralde historiko bakoitzaren baitan.

5. Eusko Legebiltzarra lau urterako hautatuko da.

6. Eusko Legebiltzarraren lege batek arautuko du bere kideen hautaketa, eta bere lurralde-esparruan betetako postu edo karguei eragin diezaieten hautaezintasun- eta bateraezintasun-arrazoia finkatuko ditu.

7. Eusko Legebiltzarkideak ukiezinak izango dira beren kargua betetzean emandako boto zein iritziengatik. Beren kargu-aldian ezin izango dira atxilotu ez atxiki Euskadiko Erkidegoaren lurralde-esparruan egindako delituengatik, delitu gori-goria izan ezik; betiere, Euskadiko Auzitegi Nagusiari dagokio legebiltzarkideak erru-egoztea, espetxeratzea, auziperatzea eta epaitzeari buruz erabakitzea. Euskadiko Erkidegoaren lurralde-esparrutik kanpo, Auzitegi Goreneko Zigor arloko Salan argitu ahal izango da erantzukizun penala, modu berean.

## **21. artikulua.- Antolaketa eta jarduteko era**

1. Legebiltzarrak bertako lehendakaria, mahaia eta batzorde iraunkorra hautatuko ditu bere kideen artean; osoko bilkuratan eta batzordetan jardungo du. Legebiltzarrak berak finkatuko du bere barne-araudia, eta legebiltzarkideen gehiengo osoz onartu beharko da. Legebiltzarrak berak onartuko ditu bere aurrekontua eta bere langileen estatutua.

2. Bilkura-aldi arrunta urtean zortzi hilabetekoa izango da gutxienez.

3. Legebiltzarrak bilkura bereziak egin ahal izango ditu Jaurlaritzaren eskariz, batzorde iraunkorraren eskariz nahiz legebiltzarkideen herenaren eskariz. Bilkura

bereziak gai-zerrenda itxiaz deitu beharko dira eta gai-zerrenda hori amaitutakoan bukatutzat emango dira.

4. Legegintzako ekimena legebiltzarkideei, Jaurlaritzari eta lurralde historikoetako foru-instituzioei dagokie, legeek finkatutako moduan. Legebiltzarkideek eskariak, galderak, interpelazioak eta mozioak aurkeztu ahal izango dituzte, bai osoko bilkuretan bai batzordeetan, araudi bidez finka daitezen moduetan.

5. Eusko Legebiltzarrak izapidetu beharreko lege-proposamenak aurkezteko herritarren ekimena lege bidez arautuko du Legebiltzarrak, gai hori euskal instituzioen eskumen-eremu eskusiboko gaia dela kontuan hartuta.

6. Berebiziko eta presako premia-kasuetan, Jaurlaritzak behin-behineko legegintzako xedapenak eman ahal izango ditu lege-dekretu eran eta ezin izango diote eragin Euskadiko Erkidegoko oinarritzko instituzioen antolamenduari, herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunei, lurralde historikoekiko harremanen araubideari eta eskumen-banaketa araubideari, ez barne hauteskunde-araubideari.

Lege-dekretuen testu osoa berehala eztabaidatu eta bozkatu behar da Eusko Legebiltzarrean; Legebiltzarra bildurik ez badago, horretarako deia egingo da, lege-dekretua noiz aldarrikatu eta hurrengo hogeita hamar egunetan. Legebiltzarrak, epe horren barruan, lege-dekretua balioetsi edo indargabetzeko erabakia hartu beharko du beren beregi; horretarako, araudiak prozedura berezi eta sumarioa ezarriko du. Era berean, aipatutako epe horretan bertan, lege-proiektu bezala izapidetzeari ekin dakioke presako prozeduraren bidez.

7. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak aldarrikatuko ditu Legebiltzarraren legeak eta, onartu eta hamabost eguneko epean “Euskadiko Agintaritzaren Aldizkarian” argitaratzeko agindua emango du.

## **Bigarren kapitulua.- Aginte betearazlea. Eusko Jaurlaritza eta Lehendakaria**

### **22. artikulua.- Izaera eta eginkizunak**

Eusko Jaurlaritza Euskadiko eginkizun betearazle eta administraziokoak dituen kide anitzeko organoa da.

### **23. artikulua.- Antolaketa**

Jaurlaritzaren eskurantzak eta bere antolaketa, Lehendakaria eta zenbait sailburu dituen oinarri, baita bertako kideen estatutua ere, Legebiltzarrak arautuko ditu.

### **24. artikulua.- Eginkizunak uzteko araubidea eta erantzukizuna**

1. Eusko Jaurlaritzak bere eginkizunak utziko ditu Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ondoren, Legebiltzarraren babes galdu ezker edota Lehendakariak kargua utzi nahiz hiltzen bada.

2. Eginkizunak utzi dituen Jaurlaritzak jardunean jarraituko du Jaurlaritza berria horiez jabetu arte.

3. Jaurlaritzak, bere osoan, Eusko Legebiltzarraren aurrean erantzungo du politikoki bere ekintzez, kide bakoitzak duen bere kudeaketaren zuzeneko erantzukizuna gorabehera.

4. Jaurlaritzako Lehendakaria eta Jaurlaritzako kideak beren kargu-aldian ezin izango dira atxilotu ez atxiki Euskadiko Erkidegoaren lurralde-esparruan egindako delituengatik, delitu gori-goria izan ezik; eta, betiere, Euskadiko Auzitegi Nagusiari dagokio horien erru-egoztea, espetxeratzea, auziperatzea eta epaitzeari buruz erabakitzea. Euskadiko Erkidegoko lurralde-esparrutik kanpo, Auzitegi Goreneko Zigor arloko Salan argitu ahal izango da erantzukizun penala, modu berean.

## **25. artikulua.- Lehendakaria**

1. Jaurlaritzako Lehendakaria Eusko Legebiltzarrak hautatuko du bere kideen artetik eta Erregek izendatuko du. Euskal tradizioen eta nortasun-ikurren arabera ekintza ospetsu batean karguaz jabetu ostean hartuko du indarra Lehendakariaren izendapenak.

2. Eusko Legebiltzarrak lege bidez finkatuko ditu Lehendakaria hautatzeko modua, bere eskurantzak, eta Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko harremanak.

3. Lehendakariak izendatu eta bereiziko ditu Jaurlaritzako sailburuak, berak zuzenduko du Jaurlaritzaren lan-jarduna, eta berak du, era berean, Euskadiko Erkidegoaren ordezkari gorenaren.

## **Hirugarren kapitulua.- Aginte judiziala. Euskal Kontseilu Judiziala**

### **26. artikulua.- Eskumenak eta jurisdikzio-organoak**

1. Justiziako euskal antolaketak Euskadiko Auzitegi Nagusian du gailurra, eta Euskadiko Erkidegoko lurralde osoan izango ditu eskumenak; bertan agortuko dira prozesuko instantzia guztiak, kasazio-errekurtsoak zein jurisdikzioko maila guztietako azken instantzia barne hartuta.

2. Euskadiko Erkidegoko jurisdikzio-organoen eskumena, aplikatutako zuzenbidea zein nahi dela ere, ordena, instantzia eta maila guztietara hedatzen da, eta Estatu osoan salbuespen bakarria Auzitegi Gorenaren jurisdikzioa izango da.

3. Euskadiko Erkidegoko jurisdikzio-organoen eskumenari dagokionez, Auzitegi Gorenari dagokio, Aginte Judizialeko organo gorenaren denez, zenbait organo judizialen artean zein Auzitegi Gorenaren beraren jurisprudentzian zuzenbidea argi eta garbi kontraesanean aplikatzen denean, doktrina bateratzea, baita Euskadiko Erkidegoko organo judizialen eta Estatu beste organoen arteko eskumen-arazoak eta jurisdikzio-arazoak erabakitzea ere.

4. Euskadiko Erkidegoko jurisdikzio-organoen eskumenari dagokionez, halaber, artikulua honetako lehengo aurreikuspenek ez diete kalterik ekarriko oinarrizko eskubideen babesean eta jagonean Konstituzio Auzitegiaren jurisdikzioari, ez eta egun Estrasburgon bizilekua duen Giza Eskubideen Europako Auzitegiari, indarrean dauden bakoitzaren erregulazioen arabera.

## **27. artikulua.- Aginte Judizialaren gobernua. Euskal Kontseilu Judiziala**

1. Euskadiko Erkidegoko eremuan Euskal Kontseilu Judiziala deitutako euskal instituzioari dagokio Aginte Judizialaren gobernua; Estatuko Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiarekin lankidetzan estuan jardunez erabiliko ditu bere eskumenak eta eginkizunak, jurisdikzioaren printzipio diren batasuna eta independentzia babesteko. Euskal Kontseilu Judizialak auzitegi-tako lehendakariari eta gainerako jurisdikzio-organoei bakoitzari bere eremu organikoan dagozkien eskurantzetan kalterik eragin gabe beteko ditu bere eskumenak.

2. Euskal Kontseilu Judizialak izendatuko du Euskadiko Auzitegi Nagusiko lehendakaria, eta kontseilu horri dagozkio, halaber, epaitegiak eta auzitegiak ikuskatzeko ahalak, baita Euskadiko Erkidegoan Aginte Judizialari eragiten dioten gaietan kontsulta eta txostenak egitea ere. Era berean, Euskal Kontseilu Judizialari dagokio Aginte Judizialaren Lege Organikoan finkatutako oinarrizko eta funtsezko irizpideekin bat etorritik Eusko Legebiltzarreko legetan xedatutakoa aplikatzea, Euskadiko idazkari, epaile, magistratu eta fiskalen hautaketa, hornidura, karrera, prestakuntza, diziplina-araubide eta ordainketei dagokienez, kontuan hartuta, ondorio horietarako, euskal zuzenbidea eta euskara jakiteak duen lehentasuna.

3. Euskadiko Auzitegi Nagusiko lehendakariak, bera buru dela, eta beste kide-talde batek osatuko dute Euskal Kontseilu Judiziala, Eusko Legebiltzarrak lege bidez arautuko dituen osakeraren eta estatutu juridikoaren arabera, beren gaitasuna kontuan hartuta, eta Euskadiko Erkidegoan beren eginkizunak betetzen ari diren epaileen eta magistratuen artean kide-tako batzuk hautatzea bermatuko duen irizpide misto bat kontuan hartuta.

## **28. artikulua.- Fiskaltza**

1. Fiskaltzak Euskadiko Erkidegoan izango duen antolaketa eta jarduteko era Eusko Legebiltzarrak lege batekin arautuko du, eta legez-kotasuna bere osotasunean defendatzea aginduko dio, jurisdikzio-ordena guztietan antolamendu juridikoak bere ardurapean utzitako ekintza guztiak erabiliz.

2. Euskadiko Auzitegi Nagusiko fiskal-burua Euskal Kontseilu Judizialak izendatuko du, eta hark beteko du zuzeneko burutza Euskadiko Erkidegoko fiskaltza guztien eta beren antolaketaren gainean. Fiskal-buruari dagokio, era berean, fiskalen izendapenerako eta karrerarako proposamena egitea Euskal Kontseilu Judizialak hauta ditzan, eta horrekin batera karguaren berezko gainerako ahalmenak.

## **29. artikulua.- Justizia-administrazioa**

1. Justizia-administrazioari buruz ordenamendu juridikoak zehaztutako ahalmen betearazle eta organiko guztiak erabiliko ditu Euskadiko Erkidegoak bere lurraldean, Estatuan agintzen duten prozesuko printzipio eta lege berberak aplikatuz, herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak babestea bermatzeko.

2. Justizia doakoa izango da Euskadiko Erkidegoan, legeak ezarritako moduan; eta hala izango da, betiere, ekonomia-baliabide nahikorik ez dutela egiazta dezatenentzat, legearekin bat etorritik defentsa profesional eta independentea behar den prozesu guztietan eskubide hori bermatuta izan dezaten.

3. Euskadiko Erkidegoak eskumen eskusiboa du aginte judizialeko antolamendurako, lurralde-barrutiak eta hiriburua finkatzeko gaietan; horretarako, epaitegi eta sail berriak sortzeko ahalmena du, baita organo judizial guztiak beharrezko baliabide material, organiko eta pertsonalez hornitzeko ere.

4. Eusko Legebiltzarrak lege bidez sortuko ditu Euskadiko Erkidegoko Justizia-administrazioaren zerbitzuko langileen funtzionario-kidegoak; berak ezarriko ditu beren estatutu juridikoa eta beren zerbitzuko harremanen araubidea ere.

5. Eusko Jaurlaritzaren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzarako beharrezko esparrua ezarriko da, Euskadiko Erkidegoko Justizia-administrazioaren kudeaketa antolatua izan dadin eta Estatu eta Europako eremuarekin koordinatzeko.

## **30. artikulua.- Polizia judiziala**

Ertzaintza, polizia judizial gisa diharduenean, Aginte Judizialaren zerbitzura izango da, lege prozesalek xedatu dezaten moduan.

# **III. TITULUA.- EUSKADIKO ERKIDEGOAREN EREMUKO HARREMAN POLITIKO ETA INSTITUZIONALEKO ARAUBIDEA**

## **Lehenengo kapitulua.- Euskal instituzioak**

### **31. artikulua.- Euskal instituzioak**

Euskal instituzioek Euskadiko Erkidegoaren aginteak erabiliko dituzte, estatutu honek eta legeek emandako eskurantzekin bat etorritik.

Estatutu honen ondorioetarako, euskal instituzio komun dira Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza eta Lehendakaria, eta Euskadiko Erkidegoko Aginte Judizialeko instituzioak.

Euskal instituzio dira, halaber, lurralde historikoetako foru-instituzio bereziak, Batzar Nagusiak eta foru-aldundiak.

Era berean, Euskadiko Erkidegoko instituzio-esparruko parte dira udal-instituzioak ere.

### **32.- Hiriburua**

Euskadiko Erkidegoko hiriburua, baita Erkidego osorako instituzioen egoitza ere, lege bidez izendatuko ditu Eusko Legebiltzarrak.

## **Bigarren kapitulua.- Instituzionalizazioa eta barne-harremanak**

### **33. artikulua.- Lurralde historikoak**

1. Euskadiko Erkidegoa osatzen duten lurralde historikoetarik bakoitzak, Erkidegoaren baitan, bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak gorde eta eguneratu ahal izango ditu. Historiako tradizioari jarraituz, Batzar Nagusiak eta foru-aldundiak dira lurralde historiko bakoitzeko foru-instituzio.

2. Lurralde historikoetako ordezkari-organismoak hautatzerakoan bozketa orokor, aske, zuzeneko, isilpeko eta proportziorako ordezkariaren irizpideei jarraituko zaie, lurralde bakoitzeko eskualde guztiei ordezkari egokia bideratuko dien hauteskunde-barrutien bidez.

### **34. artikulua.- Harremanen araubidea eta eskumenen banaketa**

1. Lurralde historikoen foru-araubide berezia errespetatuz, Erkidego osorako instituzioen eta foru-instituzioen arteko harremanen sistema eta eskumenen banaketa egiteko, lankidetzaren, elkartzaren, subsidiaritatea eta federalismoa izango dira kontuan hartu beharreko printzipioak.

2. Eusko Legebiltzarrak lege bidez arautuko ditu harremanen araubidea eta euskal instituzioen arteko eskurantzaren eta eskumenen banaketa, estatutu honetan onartutako ahalmenak eta eskumenak erabiltzeko.

3. Lurralde historiko bakoitzeko eskumenen araubide berezia osatuko duen eskumen-esparru bat gordeko dela, eta politika publikoetarako beren funtzionaltasuna hobetu eta modernizatzeko irizpideen arabera eguneratuko dela bermatzen da; hona horretarako gaiak:

- a) Autogobernuko beren instituzio propioen antolaketa, araubidea eta jarduteko era.
- b) Lurraldeko mugak gainditzen ez dituzten udalaz gaindiko lurralde-barrutiak.
- c) Udal-hauteskundearen araubidea.
- d) Lurralde eta udalerrietako ondasunen araubidea.
- e) Errepideak eta bideak.

f) Beren lurraldean zerga-araubidea ezarri eta arautzea, dagozkien zergen ordainarazpen, kudeaketa, kitapen, ikuskapen, berrikuste eta bilketarekin batera, estatutu honetan euskal instituzioei onartutako zerga-ahalaren eremuan eta Eusko Legebiltzarrak ezar ditzan zerga-harmonizazio, koordinazio eta lankidetzarako arauen eremuan.

g) Eusko Legebiltzarrak legez agindutako beste guztiak.

4. Foru-instituzioek finantza eta aurrekontuetarako autonomia izango dute, baita beren ogasuna ere, beren ahalmenak eta eskumenak egoki erabili eta finantza ditzaten. Era berean, urtero egin eta onartuko du bakoitzak bere aurrekontua, eta bakoitzaren jarduera publikoaren diru-sarrerara eta gastu guztiak jasoko dira bertan.

5. Euskadiko Ogasun Nagusiaren eta foru-instituzioen ogasunaren arteko koordinazioa eta harmonizazioa Eusko Legebiltzarrak horretarako eman ditzan arauekin bat etorritz egingo da.

### **35. artikulua.- Arbitraje-batzordea**

Euskadiko Erkidego osorako erakundeen eta lurralde historiko bakoitzeko artean sor daitezkeen eskumen-gatazkak Euskadiko Auzitegi Nagusiko lehendakariaren lehendakaritzapean eta Eusko Jaurlaritzak eta doakion lurraldeko Foru Aldundiak askatasunez izendatutako kide-kopuru berdineko arbitraje-batzorde batek ebatziko ditu, Eusko Legebiltzarrak lege batez finkatu dezan prozedurari jarraituz.

### **36. artikulua.- Euskal udalerriak**

Eusko Legebiltzarrak lege batez ezarriko du euskal udalerrien araubide juridikoa eta eskumenena, eta arautu eta babestu egingo du beren autonomia. Aipatutako udalerriei buruzko legeak Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean ezarritako oinarriko printzipioak hartu beharko ditu kontuan, eta bera izango da instituzioen arteko harremanen euskal esparruan parte hartzeko eta politika publikoak egiten eta koordinatzen parte hartzeko bermea.

## **IV. TITULUA.- EUSKADIKO ERKIDEGOKO AGINTE PUBLIKOA ERABILTZEA**

### **Lehenengo kapitulua.- Euskal autogobernua erabiltzea**

### **37. artikulua.- Gizarteko eta ekonomiako esparrua zuzenduko duten balioak.**

Euskal autogobernua aurrerapen etikodun esparru sozial eta ekonomiko batean garatuko da, balio hauek oinarri dituela:

- Garapen-eredu iraunkorra.
- Gizonezko eta emakumeen arteko benetako berdintasuna alor guztietan.
- Pertsonen ongizatea eta bizi-kalitatea.

- Enpresa-askatasuna eta aberastasun-sorkuntza.
- Enpresan parte hartzea eta enpresen arteko lankidetzak.
- Justizia soziala, eta laguntasunik gutxien duten pertsonetikiko elkartasuna.
- Lurraldean arteko oreka eta kohesioa.
- Pertsona guztiak hezkuntza, osasun eta gizarte-babes egoki eta kalitateko sistema batera iristeko bermea.
- Gizarte zibilaren aniztasunaren eta partaidetza demokratikoaren errespetua.

### **38. artikulua.- Gobernu onerako eta administrazio onerako eskubidea**

Euskal herri-aginteek beren eginkizunak betetzen ari direnean zera zainduko dute: administrazioetan bidegabekeriak debekatzea, administrazioen jarduera ona izateko eskubidea, eta kudeaketa publikoan helburu politiko-administratiboaren eginkizun soziala.

Aurrekoarekin bat etorritik, euskal herritar guztiei gobernu onerako eta administrazio onerako eskubidea bermatuko zaie, eta eduki hauek garatuz gauzatuko da:

- Administrazioaren jarduteko era gardena, eskubideen eta prozeduren gaineko informazioa, erregistro publikoetara iritsi ahal izatea eta administrazioaren jardueraren arrazoi nahikoa.
- Administrazio-prozeduren funtzionaltasuna, eraginkortasuna eta bakuntasuna, eta behar ez diren atzerapenik gabe izapidetzea.
- Administrazioek beti fede onez dihardutelako ustea aplikatuko da, administrazioak kontraktorik frogatzen ez duen artean.
- Eragimenaren aldetik, zerbitzu publikoen kostuaren, horien justifikazio sozialaren eta lortutako emaitzen artean egokitasuna izatea.
- Administrazioek jarduera bakoitzean kalitateko ereduak aplikatzeaz arduratu beharra, administrazioaren kontrolaz haratago, ematen dituzten zerbitzuen kanpoko ebaluaziorako tresnak ezarrita.
- Akasdu gertatutako administrazioaren jardueragatiko erantzukizun oso eta eraginkorra, legeekin bat etorritik.

### **39. artikulua.- Gizarte zibilaren parte hartzea**

Euskal herri-aginteek tresna egokiak ezarriko dituzte herritarrei gai publikoetan parte hartzea erraztu eta horretara bultzatzeko, bai arlo sozio-ekonomikoan, bai gizarte, kultura eta hezkuntzako arloetan, Eusko Legebiltzarraren legeren batek zein arlokako bere legeek zehaztutako tresnen bidez.

## **Bigarren kapitulua.- Aginte publikoa erabiltzeko araubide orokorra**

### **40. artikulua.- Estatuarekiko administrazio-harremanerako printzipioak**

Euskadin aginte publikoa erabiltzeko, estatutu honetan harremanerako ezarritako oinarriko printzipioez bat eta estatutuko eskumen-banaketaz bat jardungo da.

#### **41. artikulua.- Estatuarekiko administrazio-harremanerako printzipioak**

Ondorengoak izango dira Euskadiko Erkidegoaren eta Espainiako Estatuaren arteko administrazio-harremanaren oinarritzko printzipioak, bakoitzak bere eskumenak edo eginkizunak erabiltzeari dagokionez:

a) Informazioa elkartrukatzea, koordinazioa eta lankidetzak, instituzioen arteko leialtasunaz bat eta estatutu honetan elkarlanerako eta elkarrenganako bermeak izateko ezarritako jardunbideekin bat.

b) Alde bakoitzaren ahalak eta eskumen-eremuak errespetatzea eta bata bestearen eremuan ez sartzea, estatutu honetan egindako esleipen eta banaketaz bat.

c) Subsidiaritatea, administraziorik egokienaren irizpidea erabilita, betearazteko ahal publiko guztiak erabiltzerakoan.

d) Jarduerak harmonizatzea, bataren eta bestaren instituzioen artean desadostasunak sortzen direnean; dena den, estatutu honetan jasotako berme-sistema eta jarduteko modua beteko dira.

#### **42. artikulua.- Politika publikoak eskumenen banaketan**

1. Euskadiko Erkidegoan aginte publikoa nori esleitu eta nola banatu zehazteko orduan, lehentasuna izango du politika publikoak banatzeko irizpideak, eta gaien banaketa modu subsidiarioan egingo da, politika publiko jakin baten baitan jasotzeko.

2. Estatutu honi dagokionez, politika publiko diogunean, ondorengo ulertuko da: administrazioaren eskumen eta administrazio-jarduera batzuk dira, eta instituzioek horiekiko legegintzako eta betearazteko ahalak izan behar dute, erabat hezuramitu eta gara ditzaten, hain zuzen ere euskal herritarrei zerbitzu integrala eskaintzeko modua izateko.

#### **43. artikulua.- Legegintzako ahalak euskal instituzioen esku uztea.**

1. Euskadiko Erkidegoaren eginkizuna izango da bere lurraldean legegintzako ahalak erabiltzea estatutu honetan berariaz Estatuaren esku utzi ez diren politika publiko eta eskumen-eremu guztietan.

2. Euskadiko Erkidegoaren esku oso-osorik utzitako politika publiko eta eskumen-eremuetan, horiei buruzko araugintza, legegintza eta erregelamendugintzako edo garapenerako ahalak bereak baino ez dira izango. Esparru horietan euskal instituzioek sortutako Zuzenbidea izango da Euskadiko Erkidegoan ezarriko den bakarra, nahiz eta, bidezkoa denean, Europako Zuzenbidea zuzenean ezarri; beraz, euskal instituzioen eginkizuna izango da euskal erkidegoko ordenamendu juridikora Europako xedapenak ekartzea, beharrezkoa denean.

3. Estatutu honen arabera, arlo material batzuk Estatu lege organikoez garatzeko gorde badira ere, errespetatu egin beharko da oso-osorik euskal legeek instituzioez diotena eta Euskadiko Erkidegoaren esku eskusiboki utzikotako politika publikoez eta eskumen-eremuez diotena.

#### **44. artikulua.- Betearazteko ahalak euskal instituzioen esku uztea.**

1. Estatutu honen arabera, Euskadiko Erkidegoarenak dira, orokorrean, eta bere lurraldearen barruan, politika publiko guztiak betearazteko ahalak, non eta ez diren Euskadiko Erkidegoan bertan ere oso-osorik Estatuaren esku utzitako politika publikoak, estatutu honetan esaten denaz bat.

2. Euskal instituzioen esku utzitako betearazteko ahal horrek betearazte guztiak izango ditu bere baitan, hau da, bai kasuan kasuko Estatuako legeak betearaztea, bai euskal legeak betearaztea, eta ondorengoa hartuko du bere baitan ahal horrek: legeok garatzeko, betearazteko eta antolatzeke erregelamenduak ematea, eta zerbitzuak oso-osorik kudeatu eta administratu ahal izatea, ikuskatu eta berrikusteko eginkizuna ere barne dela. Horren ondorioz, Euskadiko Erkidegoaren lurralde-eremuan, euskal instituzioek eta instituzio horietako agintaritzek emandako araudiak eta jarraibideak baino ez dira ezarriko.

3. Estatutu honetan aurreikusitako Euskadiko Erkidegoko eskurantzak eta eskumenak bere lurralde-eremurako direla ulertu behar da. Euskal instituzioek beren ahal horiek arautzeko edo aurrera eramateko orduan kanpoko beste lurralde-eremuren batean eragingo balute, kasuan kasuko estatuko edo autonomia-erkidegoko agintariekin elkarlan edo lankidetzarako hitzarmenak bideratu beharko lirатеke.

4. Estatuak bermatu egin beharko du Euskadiko Erkidegoak administrazio-aginte beregainetan, finantza-instituzioetan eta Espainiako enpresa publikoetan mailarik gorenean parte hartu ahal izan dezan, ordezkariak izendatzeko duen eskubidea, baldin eta horien jardunak Euskadiren eskumen eta interesetan zuzenean zein zeharka eragiten badu.

#### **Hirugarren kapitulua.- Estatuaren politika publiko eskusiboak**

#### **45. artikulua.- Estatuak Euskadiko Erkidegoan izango dituen politika publikoak**

1. Euskadiko Erkidegoarekin duen harremanean, oso-osorik Estatuarena izango da legegintzako eta betearazteko ahala, ondoren zehazten den moduan, jarraian aipatzen diren arlootako politika publikoa zehaztu, betearazi eta kontrolatzeko:

a) Espainiako naziotasuna, atzerritartasuna eta asilo-eskubidea, nahiz eta emigrazio eta inmigrazioarekin zerikusia duten politikak elkarrekin banatuko diren, Euskadiko Erkidegoaren politika sektorial eksklusiboengan eragina duten neurrian.

b) Defentsa eta indar armatuak.

c) Armak eta lehergailuak ekoiztu, saldu nahiz erosi, eduki eta erabiltzeko araubidea.

d) Diru-sistema.

e) Muga eta muga-sarien araubidea.

f) Merkataritzako nabigazioa; ontziei bandera jartzea eta aireontziei matrikula jartzea; aireko espazioa kontrolatzea.

g) Nazioarteko harremanak, nahiz eta kontuan izan beharko diren estatutu honetan Euskadiko Erkidegoari atzerrian jarduteko aitortzen zaizkionak.

2. Era berean, Euskadiko Erkidegoarekin duen harremanean, Estatuari gordetzen zaio ondoren aipatzen diren arloetako lege komunak ematea, nahiz eta euskal instituzioek izango duten lege horiek garatu eta Euskadiko zuzenbide sustantibora egokitzeko gaitasuna, eta baita lege horiek aplikatu eta betearazteko ahala ere.

Hori hala izanik, Estuatur dagokio:

- a) Zigor, espetxe eta arlo prozesaleko legeria, euskal zuzenbide sustantiboak dituen ezaugarri bereizgarriei kalterik eragin gabe.
- b) Merkataritzako legeria, baina kontuan izanda merkataritzako izaera duten kontratu-betebeharren oinarriak garatu beharko direla, eta baita, beharrezkoa bada, administrazio-kontratu eta –emakiden oinarriak ere.
- c) Legeria zibila, baina kontuan izanda zuzenbide pribatu zibil forala edo Euskadiko berezkoa dena.
- d) Jabetza intelektual eta industria-jabetzari buruzko legeria.
- e) Pisu eta neurriak, metalen kontrastea eta ordu ofiziala zehaztea.

## **Laugarren kapitulua.- Euskadiko Erkidegoaren politika publiko eskusiboak**

### **1. atala.- Araubide orokorreko politika publiko eskusiboak**

#### **46. artikulua.- Institutuzionalizazio eta autogobernuko politikak**

Euskadiko Erkidegoari dagozkio oso-osorik instituzionalizazio eta autogobernuko politika publikoak. Politika publiko horiek gauzatu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo gai eta eremuetan:

- a) Autoantolaketa eta funtzionamenduko araubide berezia, ikurrak eta autogobernuko instituzioak.
- b) Euskadiko Erkidego barruko lurralde-barrutiak.
- c) Hauteskundeen araubidea.
- d) Funtzionarioen estatutu juridikoa.
- e) Zuzenbidetik eta berezko antolaketatik datorren administrazio-prozedura; Euskadiko Erkidegoko herri-administrazio guztien erantzukizun-sistema, nahitaez jabetza kentzeko sistema, ondarea eta araubide juridikoa.
- f) Elkarreak eta fundazioak.
- g) Euskadiko zuzenbide pribatu zibil foral edo berezkoa; horren baitan egongo dira:
  - Euskadiko lurralde barruan zuzenbide hori nori ezarriko zaion jakiteko araubidea zehaztea.

- Euskadiko Erkidego barruko erregistro eta eskritura publiko zibil guztiak antolatu eta kudeatzea, euskal instituzioen baitakoak baldin badira administratiboki edo judizialki.

- Familia-zuzenbidearen baitako harreman juridiko eta zibilak antolatzea, horren barruan sartzen direla ezkontza-araubidearen ordezkoren pertsonen arteko elkartze iraunkorrak arautzearen ondorioak.

- Ekonomia eta ondarearekin zerikusia duten harreman juridiko zibilak antolatzea, Estatuak kontratu-betebeharren inguruan jarriko dituen oinarriak errespetatuta.

#### **47. artikulua.- Hezkuntza eta kultura arloko politikak**

1. Euskadiko Erkidegoaren eginkizuna izango da oinarrizko eskubide eta betebeharren garapen konstituzionala, ondorengo arlootako araubide juridikoaz ari garela: hizkuntzen erabilera, adierazpen- eta komunikazio-askatasuna, hezkuntza- eskubidea eta irakaskuntzako askatasuna.

2. Euskadiko Erkidegoak oso-osorik dituen hezkuntza eta kulturaren arloko eskumenak, arlo horietako politika publikoak zehaztu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo arlo eta eremuetan:

a) Unibertsitateaz kanpoko zein unibertsitateko irakaskuntza, arlo, maila, gradu, molde eta espezialitate guztietan, etengabeko ikaskuntza barne.

b) Lanbide-heziketa, horren barruan sartzen direla kualifikazioko eta lanbide-heziketa arautu, okupazional eta etengabeko prestakuntzako azpisistema guztiak.

c) Ikasketa-tituluak eta lanbideetarako tituluak lortu, eman eta homologatzea.

d) Kultura eta artearen arloko ondarea eta ondare monumentalak babestea.

e) Eskulangintza.

f) Museo, liburutegi eta artxiboak.

g) Zinema, arte eszeniko, kirol eta ikuskizunak.

h) Prentsa, irrati, telebista eta, orokorrean, gizarte-hedabide guztien araubidea.

3. Euskadiko Erkidegoaren nortasunarekin eta kultura-ordezkaritzarekin zerikusia duten arloetan, Estatuak bermatu egin beharko du nazioartean euskal nortasunak ordezkaritza izatea, kulturarekin zerikusia duten ondorengo adierazpideetan: kirol-jardueretan eta literatura, arte, zientzia eta teknikarekin zerikusia duten industria, produkzio eta sormen-ekintzetan; horren baitan nazioarteko organoetan Euskadiko Erkidegoa ordezkatuta egotea eta atzerrian euskal kultura sustatzea ere sartzen da, eta horretarako, akordioak izenpetu ahal izango dira nazioarteko nahiz beste herrialde batzuetako instituzio eta erakundeekin.

4. Euskadik kirol arloko selekzio nazionalak izateko eskubidea dauka, eta selekziook nazioarteko lehiaketetan ofizialki parte hartu ahal izango dute.

#### **48. artikulua.- Gizarte eta osasun arloko politikak**

Euskadiko Erkidegoari dagozkio oso-osorik gizarte eta osasun arloko politika publikoak. Politika publiko horiek gauzatu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo gai eta eremuetan:

- a) Barruko eta kanpoko osasuna.
- b) Farmazia-antolamendua eta osasun arloko eta farmaziako produktuak.
- c) Gizarte-laguntza.
- d) Adin txikikoak babestu eta zaintzeko instituzio eta egoitzak.
- e) Espetxe eta gizarteratzeko instituzioak eta horien araubidea.
- f) Garapen komunitarioa.
- g) Genero berdintasuneko politikak.
- h) Haur, gazte eta adinekoen aldeko politika.
- i) Etorkinak gizartean eta lan-munduan barneratzea.
- j) Familia babesteko politikak.

#### **49. artikulua.- Ekonomia eta finantzen arloko politika sektorialak**

Euskadiko Erkidegoari dagozkio oso-osorik ekonomia eta finantzen arloko politika publiko sektorialak. Politika publiko horiek gauzatu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo gai eta eremuetan:

- a) Kontsumitzaile eta erabiltzaileak defendatzea.
- b) Energia sortu, banatu eta garraiatzeko instalazioak.
- c) Meategien eta energiaren araubidea; baliabide geotermikoak.
- d) Nekazaritza eta abeltzaintza.
- e) Mendiak, baso-ustiapenak eta zerbitzuak, abelbideak eta larreak.
- f) Itsas arrantza eta arrantza arloa antolatzea, itsaski-bilketa eta arrain-hazkuntza, eta ibai eta aintziretako ehiza eta arrantza.
- g) Industria.
- h) Telekomunikazioak.
- i) Informazioaren eta jakintzaren gizartearekin zerikusia duten teknologia berrien araubidea.
- j) Zientzia eta teknika arloko ikerketa.
- k) Barruko eta kanpoko merkataritza, feria eta azokak; jatorrizko izenak eta iragarkiak.
- l) Zuzenbide publikoko korporazioak, eta bereziki arrantzaleen kofradiak, eta merkataritza, industria eta nabigazioko ganberak.
- m) Elkargo profesionalak eta tituludun lanbideetan aritzea; notarioen araubidea, jabetza-erregistratzaileak, kanbio eta burtsako agenteak eta merkataritza-artekariak.
- n) Turismoa, aisia eta olgeta.
- o) Kasinoak, jokoak eta apustuak.
- p) Kredituaren, bankuen eta aseguruaren antolamendua.
- q) Gizarte Segurantzaren baitan ez dauden kooperatiba eta mutualitateak.
- r) Kreditu-erakundeak eta aurrezki-kutxak.

- s) Merkataritzako burtsak eta salgai eta baloreak kontratatzeke gainerako zentroak.
- t) Estatistika.

#### **50. artikulua.- Naturako baliabide, lurralde-antolamendu, etxebizitza eta ingurumeneko politikak**

1. Euskadiko Erkidegoari dagozkio oso-osorik naturako baliabide, lurralde-antolamendu, etxebizitza eta ingurumeneko politika publikoak. Politika publiko horiek gauzatu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo gai eta eremuetan:

- a) Ingurumena eta ekologia.
- b) Itsas salbamendua eta industriako isurpenak eta isurpen kutsagarriak.
- c) Ustiapen hidraulikoak, ubideak eta ureztatzeak, ur mineralak, ur beroak eta lurpeko urak.
- d) Lurraldearen eta itsasbazterren antolamendua.
- e) Hirigintza eta etxebizitza.

2. Estatutu honetan esaten denaren arabera, Euskadiko Erkidegoaren jabetza publikoko ondasunak izango dira bere lurraldearen baitan dauden naturako baliabideak eta, bereziki, itsasertza eta hondartzak, itsasoa -hamabi milia barruan- eta horietan guztietan dauden baliabide naturalak. Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez, nazioarteko arau eta hitzarmenak errespetatu eta Estatuko legeriaren funtsezko printzipio eta helburuak beteta, ondasun horiek nola administratu, babestu eta zaindu arautuko da.

#### **51. artikulua.- Azpiegitura eta garraioko politikak**

1. Euskadiko Erkidegoari dagozkio oso-osorik azpiegitura eta garraioko politika publikoak. Politika publiko horiek gauzatu, betearazi eta kontrolatzeko, euskal instituzioek legegintzako eta betearazteko ahal guztiak izango dituzte ondorengo gai eta eremuetan:

- a) Trenbideak.
- b) Lurreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioa.
- c) Portuak, heliportuak eta aireportuak.
- d) Metereologiako zerbitzua.
- e) Garraio-gaietako kontrata-guneak eta zama-terminalak.
- f) Herri-lanak.
- g) Motordun ibilgailuen trafiko eta zirkulazioa.

2. Estatutu honen arabera, Euskadiko Erkidegoaren erabateko jabetzakoak izango dira osorik edo zati batean bere lurraldearen barruan dauden obra publiko eta azpiegitura guztiak, kontuan izan gabe interes orokorreko zatia dauden edo ez, eta barne hartuko dira garraio eta komunikazioko sistemen euskarri diren azpiegiturak ere, erkidegoaren lurraldean dauden zatiei edo lurraldetik igarotzen diren zatiei dagokienez.

3. Euskal instituzioek beren jarduerak koordinatu eta Estatuarekin eta autonomia-erkidegoekin elkarlanean jardungo dute, bakoitzak bere interesak babesteko, eta interes orokorreko azpiegitura eta obra publikoei buruzko legeria berezia ezarriko dituzte, beti ere estatutu honetan jasotzen dena kontuan izanda.

## **2. atala.- Araubide bereziko politika publiko eskusiboak**

### **52. artikulua.- Segurtasun publikoko politikak**

1. Estatutu honen arabera, Euskadiko Erkidegoari dagozkio, pertsonak eta ondasunak babestu ahal izateko, legeetan agintaritzari eta segurtasunari buruz jasotzen diren eginkizun guztiak, eta baita Ertzaintzaren araubidea zehaztea ere.

2. Estatuko segurtasun-indar eta kidegoen eskuetan geratuko dira, Euskadiko Erkidegoan aurrera eramateko, oso-osorik Estatuaren eskuetan utzitako politika publikoak kontrolatzeari lotuta dauden polizia-zerbitzuak, eta horiek baino ez.

3. Lehendakaria izango da Ertzaintzaren agintari gorena.

4. Estatuko eta Euskadiko Erkidegoko kide-kopuru beraz osatutako segurtasun-batzorde batek Ertzaintzaren eta Estatuko segurtasun indarren eta kidegoen arteko koordinazioa bermatuko du, dena delako delituak Euskadiko Erkidegoari eta Estatuari, biei, eragiten dienean.

### **53. artikulua.- Gizarte eta lan arloko nahiz enpleguko politikak**

1. Euskadiko Erkidegoaren esku uzten dira ahal eta funtzio publiko guztiak gizarte eta lan arloko eremu propioa finkatu eta arautu ahal izateko. Gizarte eta lan arloan dituen eskumenak gauzatzeko kontuan izango ditu langile eta enpresariak dituzten oinarritzko eskubide eta betebeharrak, hain zuzen Estatuan eta Europa mailan zehaztutakoak.

2. Euskadiko Erkidegoari dagozkio lan, enplegu, prestakuntza eta laneko arriskuei aurre hartzeko arloetako legegintzako eta betearazteko ahalak. Horretarako, eta bere lurraldearen barruan, Euskadiko Erkidegoak aipatu diren arlo horiekin zerikusia duten zerbitzu guztiak antolatu, kudeatu eta zaindu ahal izango ditu, horien artean dela ikuskaritza ere, nahiz eta Estatuarekin elkarlan eta lankidetzan jardun beharko duen.

3. Euskal instituzioen eskumena izango da, beren lurraldearen barruan, sindikatuen eta enpresarien elkarteek ordezkaritza zehaztea irizpide erabat demokratikoak erabilita, eta baita negoziazio kolektiboaren araubidea eta eraginkortasuna zehaztea ere, beti ere kontuan izanda Euskadiko Erkidegoko sindikatuen eta enpresarien elkarteek hitzartutako borondatea errespetatuko dutela.

4. Euskal instituzioek alde biko beharrezko organoak eratuko dituzte, bai Estatuarekin eta baita Europar Batasunarekin ere harremanetan izateko, hain zuzen ere lan arloko eskumenak erabiltzerakoan elkarlan eta lankidetzan aritzeko. Eskumen horiek erabiltzearen ondorioz sortzen diren finantza-arloko harremanek, horren barruan direla Estatuko edo Europako funtsetan parte hartzeak ere, estatutu honetan aipatzen den Ekonomia Ituneko sisteman esaten dena bete beharko dute, elkartasun-printzipioa kontuan hartuta.

5. Lan-arloko eskumenak erabiltzerakoan, sindikatuek eta enpresarien elkarteek parte hartze demokratikoko irizpideekin jardungo dutela bermatuko dute aginte publikoek; horrekin batera, lan-baldintzak gizartearen garapen eta aurrerapen mailarekin bat etor daitezzen saiaturako dira, eta langileen kualifikazio eta etengabeko prestakuntza sustatuko dute, langileok lanean emango duten urte guztietan zehar.

6. Gizarte eta lan arloko kontuetan, Lan Harremanen Euskal Kontseilua izango da euskal instituzioentzako erakunde aholku-emailea, eta sindikatu eta enpresarien elkarteak elkarrekin bildu eta elkarrizketarako organo iraunkorra izango da Euskadiko Erkidegoan. Kontseilu horren helburua negoziazio kolektiboa sustatu eta lan-arloan sortzen diren gatazketan bitartekotza-lana bideratzea izango dira.

Lan Harremanen Euskal Kontseiluak nortasun juridiko propioa eta independentea izango du jaso dituen eskurantzak garatzeko, eta Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez arautuko dira eskurantza horiek.

#### **54. artikulua.- Gizarte-babeseko politikak**

1. Euskal aginte publikoek gizarte-segurantzako erregimen publiko bat mantenduko dute herritar guztientzat, eta horren bidez premia sortzen denean behar besteko laguntza eta gizarte-prestazioak izatea bermatuko da.

2. Euskal instituzioen eginkizuna izango da Estatuak gizarte-aurreikuspenaren eta gizarte-segurantzaren arloan duen legeria garatzea, eta baita gizarte-segurantzako sistema publikoa kudeatzea ere erkidegoan; hori guztia aurrekontu propioa izanda egingo da, eta Euskadiko Erkidegoan sorrarazitako kotizazioak eskuratzeko eginkizuna eta bertan egon eta sistemari atxikita dagoen ondarea kudeatzeko eginkizuna ere izango dute euskal instituzioek.

3. Estatu osoko gizarte-segurantzako sistemako baliabideen titulartasunaren batasunaren printzipioa bermatuko dute euskal instituzioek. Hori hala izanik, euskal instituzioek sistema horretan parte hartzeko, Estatutu honetan aurreikusitako Ekonomia Itunaren sistema beteko da, eta sistema horretan baliabide ekonomikoen joan-etorriak eta ikuskapen-moduak zehaztuta egongo dira, Estatu osoko herritarren arteko solidaritatearen eta bereizkeriarik ezaren printzipioak bermatuta egon daitezzen.

4. Euskadiko Erkidegoak artikulua honetan aipatu diren arloekin zerikusia duten zerbitzu guztiak antolatu eta administratu ahal izango ditu bere lurraldean, eta gizarte-segurantzaren inguruko instituzio, erakunde eta fundazioen gaineko zaintza egingo du.

## **V. TITULUA.- EUSKADIKO ERKIDEGOKO EKONOMIA, OGASUNA ETA ONDAREA**

### **Lehenengo kapitulua.- Ekonomiaren eremuan aginte publikoa erabiltzea**

#### **55. artikulua.- Estatuarekiko harreman ekonomikorako printzipioak**

1. Estatutu honetan zehazten den eta gai horren inguruan Eusko Legebiltzarrak emango dituen arauetan zehaztuko den harreman- eta banaketa-araubideaz bat eramango dituzte aurrera euskal instituzioek titulu honetan aitortzen zaizkien ahalmen eta eskumenak.

2. Bestalde, Konstituzioak ematen dizkion ahalmen eta eskumenak titulu honetan esaten denera egokitu beharko ditu Estatuak Euskadiko Erkidegoan diharduenean.

3. Euskadiko Erkidegoaren eta Estatuaren arteko ekonomia eta finantza arloko harremanak, bakoitzaren ahalmen eta eskumen direnak erabiltzearen ondorio diren harremanak, bi aldeen artean eramango dira aurrera, eta horretarako sistema foral tradizionala, hau da, Ekonomia Ituna, erabiliko da, kasuan-kasuan hitzartutako legez xedapen edo erregelamenduen bidez.

4. Eztabaida eta desadostasunak sortuz gero, bitariko batzorde batean aztertu eta, hala badagokio, konponduko dira; bitariko batzorde hori Euskadiko Erkidegoko eta Estatuko ordezkariak osatuko dute, bi aldeek kopuru bera dutela. Bitariko batzorde horren baitan, bi aldeetan beharrezko tresna guztiak jarriko dira lanean titulu honetan aitortzen diren ahalmen eta eskumen guztiak koordinatu, harmonizatu eta elkarlanean aritzeko, eta, era berean, Estatuko eta Europar Batasuneko politika publikoetara egokituta egon daitezen ahalmen eta eskumenok.

5. Bereziki beharrezko bideak zabalduko dira euskal instituzioek Europar Batasunean eta nazioarteko itun eta hitzarmenetan parte hartu ahal izateko, baldin eta horietan titulu honetan aitortzen diren ahalmen eta eskumenetan eragina izango duten gaiez jarduten bada.

6. Aurreko paragrafoetan aurreikusitako prozeduraren arabera zehaztuko den moduan, euskal aginte publikoek titulu honetan aitortzen zaizkien ahalmen eta eskumenak erabiltzerakoan, elkartasun eta lurraldeen arteko oreka ekonomikoaren printzipioa bete beharko dute, eta horrekin batera, pertsonak mugitzeko eta kokatzeko duten askatasuna eta ondasun, kapital eta zerbitzuak mugitzeko askatasuna errespetatu eta bermatu beharko dute, inolako bereizkeriarik sortu gabe eta enpresen arteko lehia askerako aukerak murriztu gabe.

## **Bigarren kapitulua.- Euskadiko ekonomiaren eta finantzen antolamendua**

### **56. artikulua.- Ekonomiaren jarduera antolatu eta planifikatzea**

1. Euskal instituzioei dagokie oso-osorik ekonomiaren jarduera antolatu eta planifikatzea eta Euskadiko Erkidegoko ekonomia gara dadila sustatu eta bultzatzea, beti ere jabetza pribatua izateko eskubideaz eta enpresen askatasuna errespetatzeaz bat, merkatuko ekonomiaren baitan.

2. Euskal instituzioek ekonomiaren jardueran ekimen publikoa erabili ahal izateko, Eusko Legebiltzarrak baino ez du izango ahalmena oinarrizko baliabide edo zerbitzu batzuk lege bidez arlo publikoaren esku uzteko, bereziki monopolioa legokeen kasuan, eta, era berean, enpresek parte hartzea erabaki ahal izango luke, interes orokorrak hala eskatuko balu.

3. Ildo beretik, eta Estatuko legeriaren oinarrizko printzipioak errespetatuta, Eusko Legebiltzarraren eginkizuna izango da jabetza pribatuaren eginkizun sozialaren mugak arautzea eta jabetza pribatuaren ondoriozko edozein eskubide gauzatzeari mugak jartzea, erabilpen publikoak edo gizarte interesak eragindako arrazoiren bat baldin badago; dena den, kasu guztietan kalte-ordaina eman beharko da.

4. Estatuak beharrezko neurriak bideratuko ditu euskal instituzioek erkidegoaz gaindiko jarduera ekonomikoaren plangintzan parte hartzeko aukera izan dezaten.

5. Era berean, euskal instituzioek Estatuko sektore publiko ekonomikoaren kudeaketan parte hartuko dute, erkidegoko lurralde-eremuan, eta Estatuarekin ados jarrita, beren ordezkariak izendatuko dituzte erakunde ekonomikoetarako, kontrol-organoetarako, finantza-erakundeetarako eta Estatuko enpresa publikoetarako. Bestalde, beharrezkoa izanez gero, Europar Batasunerako ordezkariak ere izendatuko dituzte, horren eskumenak edo eragina Euskadiko Erkidegoaren lurralde-eremura iristen badira.

6. Euskal instituzioek izango dute lehiaren defentsaren arloko legegintzako eta betearazteko ahala, eta hori hala izango dela zainduko duen erakundea sortuko dute. Erakunde horrek Lehia Babesteko Estatuko Auzitegiarekin eta arlo horretarako European eta nazioartean dauden erakundeekin koordinatuta jardungo du.

7. Euskadiko Kontseilu Ekonomiko eta Soziala izango da euskal instituzioen organo aholku-emailea, eta horren bidez interes ekonomiko eta sozial guztiek parte hartu ahal izango dute Euskadiko Erkidegoko politika ekonomikoan. Kontseiluak berezko nortasun juridikoa eta bere helburuak betetzeko erabateko gaitasuna eta independentzia izango ditu. Eusko Legebiltzarreko lege baten bidez arautuko da nola osatu eta zein eginkizun izango dituen.

### **57. artikulua.- Finantza-sistema**

1. Euskal instituzioei dagokie oso-osorik Euskadiko Erkidegoko finantza-sistema arautu eta ikuskatzea, Estatuko legeriak merkataritzaren arloan kreditu, banku eta aseguruak antolatzeko dituen oinarrizko printzipioekin bat, eta beti ere muga eta

muga-sarien araubidearen arloan eta diru-sisteman Estatuak dituen eskumenei kalterik egin gabe.

2. Euskadiko Erkidegoak, Estatuarekin ados jarrita, Estatuko finantza-sistema kontrolatzeko instituzio eta erakundeetan parte hartu eta horietarako dagozkion ordezkariek izendatuko ditu, eta behar izanez gero, baita Europar Batasuneko erakundeetakoak ere, horren eskumenak edo eragina Euskadiko Erkidegoaren lurralde-eremura iristen badira.

## **Hirugarren kapitulua.- Euskadiko ogasuna eta ondarea**

### **58. artikulua.- Euskadiko Ogasun Orokorra**

1. Euskadiko Erkidegoaren jabetzakoak diren ekonomia-izaerako eskubide eta betebeharrak guztien multzoak osatuko du Euskadiko Ogasun Orokorra.

2. Eusko Legebiltzarrak arautuko ditu, lege bidez, Euskadiko Ogasun Orokorren bere baitan biltzen dituen gaiak.

3. Euskadiko Ogasun Orokorren sarrerak honako hauek izango dira:

a) Foru-instituzioek Euskadiko Erkidegoko karga orokor guztiei aurre egiteko egindako ekarpenak, Eusko Legebiltzarreko lege batean xedatuko denaz bat.

b) Eusko Legebiltzarrak ezarriko dituen zergen errendimendua, estatutu honetan ezarritakoaz bat.

c) Jabari publikoa erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa, ondare-prestazioak eta beste eskubide ekonomiko batzuk.

d) Euskadiko Erkidegoan ordaintzekoak diren zergeri Eusko Jaurlaritzak ezarritako gainordainak, halakorik erabakiz gero.

e) Europar Batasunetik jasotako transferentziak.

f) Estatuko aurrekontu orokorraren konturako transferentziak eta beste diru-esleipen batzuk.

g) Bere ondareak ematen dituen etekinak eta zuzenbide pribatuko diru-sarrerak.

h) Estatutu honetan aitortzen zaion ahalaz baliatuta egindako kreditu-eragiketen eta zor-jaulkipenen emaitza.

i) Estatutu honetan eta Eusko Legebiltzarraren legeetan erabakitakoaren arabera finkatu litezkeen beste diru-sarrera batzuk.

4. Euskadiko Erkidegoak, bere eskumenen barruan diharduela eta bertako ogasun orokorrari dagokionez, Estuari aitortzen zaizkion prerrogatiba berak izango ditu.

### **59. artikulua.- Euskadiko aurrekontu orokorrak**

1. Euskadiko Erkidegoko aurrekontu orokorrak urtebetekoak izango dira, jarduera publiko orokorrean izango diren diru-sarrera eta gastu guztiak jasoko dituzte, eta Eusko Jaurlaritzak egin eta Eusko Legebiltzarrak onartuko ditu.

2. Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez arautuko da aurrekontu orokorrak nola egin, aztertu, zuzenketak nola sartu, nola aldatu, erabili, likidatu eta kontrolatu, eta baita, beharrezkoa bada, aurrekontuok nola luzatu ere.

3. Euskadiko Erkidegoko aurrekontu-politika Estatukoarekin koordinatu eta harmonizatzeko, hain zuzen ere ekonomiaren eta aurrekontuen egonkortasuna bermatu ahal izateko, estatutu honetan ekonomia-harremanerako zehazten diren printzipio eta tresnekin bat jardungo da.

## **60. artikulua.- Finantza-autonomia**

1. Euskadiko Erkidegoak zergen eta finantzen arloko autonomia izango du estatutu honetan aitortzen zaizkion eskumenak garatu eta betearazi ahal izateko.

2. Euskadiko Erkidegoko finantza-jarduera Estatuarenarekin koordinatu eta harmonizatzeko da, estatutu honetan aurreikusten denaz bat. Horrekin bat, Euskadiko Erkidegoaren eta Estatuaren arteko finantza-arloko lankidetzarako moduak zehaztuko dira, bereziki Erkidegoak Estatuko karga orokorrei aurre egiteko zer nolako ekarpenak egin beharko dituen, Estatuko diru-sarreretatik zenbat eskuratuko duen eta inbertsio publikoen politikan zer nolako elkarlana izango duten zehazteko.

3. Estatuak Erkidegoaren lurraldean aurrera eramandako politikei dagozkien zama orokorrak finantzatzeko, estatutu honetan zehazten denaz bat lagunduko du Euskadiko Erkidegoak, eta horretarako, kupo orokor bat ordainduko du Ekonomia Itunaren baitan. Aipatutako kupo orokorra finkatzeko, bitariko batzorde bat sortuko da, alde batetik, foru-aldundi bakoitzaren ordezkari banaz eta Eusko Jaurlaritzaren beste horrenbestez osatuta, eta, beste aldetik, Estatuaren administrazioaren ordezkari-kopuru beraz.

## **61. artikulua.- Zergak zehazteko ahala**

1. Euskadiko Erkidegoak bere zerga-sistema eta araubidea zehaztu, mantendu eta arautzeko ahala dauka, bere lurraldearen barruan ari dela; sistema hori inola ere ez da izango konfiskatuzkoa, eta berdintasun eta progresibitate printzipioen arabera izango da.

2. Nazioarteko itun eta hitzarmenetan esaten denaz eta Europar Batasunean zergen arloa harmonizatzeko arauetan esaten denaz bat, euskal instituzio eskumendunen eginkizuna izango da zerga-mota guztiak ordainarazi, kudeatu, kitatu, ikuskatu, berrikusi eta eskuratzea, non eta Estatuaren edo Europako erakundearen eremukoak ez diren, aipatutako arau horien arabera.

3. Estatuko zergek ezin izango dituzte Euskadiko Erkidegoak grabatutako zergapeko egitateak zergapetu, eta alde zuzenetik ados jarrita, osorik edo zati batean euskal instituzioen esku utzi ahal izango dira zerga horiek.

4. Estatuak ezin izango du inoiz ere Euskadiko Erkidegoan dauden ondasunak zergapetzeko neurririk hartu, ez eta salgaien nahiz zerbitzuen zirkulazio askean oztopoak eragin ditzakeen neurririk ere.

5. Era berean, euskal instituzio eskumendunek Estatuko zergeri gainordainak jarri eta gainordainok arautu ahal izango dituzte, beren lurralde-eremuan, beti ere zerga horien izaera eta egitura itxuragabetzen ez den artean.

## **62. artikulua.- Kreditua eta zor publikoa**

1. Euskal instituzioek zor publikoa jaulki nahiz kredituak eskatu ahal izango dituzte, Eusko Legebiltzarraren lege batean ezarriko den moduan.

2. Euskadiko Erkidegoaren zor publikoa eta euskal instituzioek jaulkitako titulu baliokideak funts publikotzat joko dira ondorio guztietarako, eta Estatuko zor publikoak dituen onura eta baldintza berak izango dituzte.

## **63. artikulua.- Ondarea**

1. Euskadiko Erkidegoaren ondarean sartuko dira, inolako salbuespenik gabe, estatutu honen arabera euskal instituzioek beren gain hartu dituzten eskumen eta zerbitzuei lotuta dauden eskubide eta ondasun guztiak.

2. Eusko Legebiltzarrak erabakiko du zein euskal instituzioren esku utzi ondasun eta eskubideon jabetza edo erabilera.

3. Eusko Legebiltzarrak ondorengoak arautuko ditu: jabari publikoko ondasunen eta herri-ondasunen araubide juridikoa eta ondasun horien desfektazioa, besterenduezintasun, preskribiezintasun eta enbargaezintasunaren oinarritzko printzipioak errespetatuta; jabari pribatuko ondasunen araubide juridikoa, administrazio-emakidak, kontratu-betebeharren oinarriak errespetatuta; eta Euskadiko Erkidegoko ondarea administratu, babestu eta zaintzeko modua.

4. Euskal instituzioek Euskadiko ondare historiko, kultural eta artistikoa nahiz horietako ondasunak zaindu eta aberastea bermatuko dute, horien araubidea eta titulartasuna edozein izanda ere.

## **64. artikulua.- Herri Kontuen Euskal Epaitegia**

1. Herri Kontuen Euskal Epaitegia izango da Euskadiko Erkidegoko arlo publikoaren ekonomia- eta finantza-jarduera ikuskatuko duen organo goren eta bakarra.

2. Eusko Legebiltzarraren menpeko organoa den aldetik, eginkizunak Legebiltzarrak eskuordetuta eramango ditu aurrera, eta Euskadiko Erkidegoko lurralde osoan izango du jurisdikzioa.

3. Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideek epaileek duten independentzia eta aldaezintasun bera izango dute.

4. Eusko Legebiltzarreko lege baten bidez arautuko da nortzuk osatuko duten, nola antolatuko den eta zein eginkizun izango dituen, eta baita ikuskapen-lana aurrera eramanean dezan zer nolako berme eta prozedurak izango diren eta kontabilitateko erantzukizuna nola auzipetuko den.

## **VI. TITULUA.- EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO EREMUAREKIKO HARREMAN POLITIKOAREN ARAUBIDEA**

### **Lehenengo kapitulua.- Europarekiko harremanak**

#### **65. artikulua.- Europar Batasuna**

1. Estatuak honen ondoriozko konpromisoak Europar Batasuneko itunetan jasoko ditu Estatuak, beharrezkoa den moduan, Europan estatutua aitortu eta errespetatu dezaten bermatzeko.

2. Europar Batasuneko araudiaz bat, Euskadiko Erkidegoak zuzeneko ordezkariak izango du Europar Batasuneko organoetan. Horretarako, Espainiako Gobernuak beharrezko bideak egokituko ditu Eusko Jaurlaritzak Batasuneko erakundeetako erabakiak hartzeko prozeduretan modu aktiboan parte hartzeko aukera izan dezan, erabakiok erkidegoaren eskumeneko gaiak eragiten badiete.

Era berean, euskal instituzioetako ordezkariak Estatuak Europar Batasuneko Ministroen Kontseilurako izendatuko dituen ordezkarietako kide izango dira, oso-osorik erkidegoaren eskumenekoak diren politika publikoari buruzko gaiak direnean kontseilukoak.

3. Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak beharrezko koordinazio-sistemak bideratuko dituzte, Batasuneko funtsak prestatu, programatu, banatu eta betearazteko prozesuetan benetan parte hartzeko aukera bermatuta izan dezan Euskadiko Erkidegoak.

4. Euskal instituzioen eginkizuna izango da Batasuneko zuzentarauak erkidegoko legerian txertatzea, beti ere erkidegoaren eskumenekoak direnean.

5. Euskal instituzioek Europako Justizia Auzitegira jotzeko aukera izatea bermatuko du Estatuak, Europako araudian erkidegoak zuzenean jotzeko eskubidea aurreikusten ez den artean.

6. Euskadiko Erkidegoa hauteskunde-barruti bakarra izango da Europako Legebiltzarreko hauteskundeetan.

## **66. artikulua.- Europako mugaz haraindiko eta eskualdeen arteko lankidetz**

Euskal instituzioek, subsidiaritate printzipioa oinarri hartuta, Europako mugaz haraindiko eta eskualdeen arteko lankidetz bultzatuko dute, hori baita herriak eta eskualdeetako giza taldeak aitortuko dituen Europa eraikitzeo oinarrizko lehengai, kultura aberastu eta demokrazian sakondu ahal izateko.

## **Bigarren kapitulua.- Kanpo-harremanak**

### **67.- artikulua.- Kanpo-ordezkaritza**

1. Euskal herri-erakundeek beharrezko jarduerak eramango dituzte aurrera Euskadiko Erkidegoaren mugez gaindi, euskal herritarren interesak defendatu eta bultzatzeko, eta horretarako, akordio, hitzarmen eta protokoloak izenpetu ahal izango dituzte nazioarteko instituzio eta erakundeekin beren instituzioen eskumenekoak diren gaietan.

2. Helburu horiek lortzeko, Eusko Jaurlaritzako kanpo-ekintzak beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak izango ditu eskura, eta, beharrezkoa bada, atzerrian ordezkapena izateko ordezkaritza eta bulegoak sortu ahal izango ditu, eta horien estatutua Eusko Legebiltzarreko lege baten bidez arautuko da.

3. Euskadiko Erkidegoak zuzeneko ordezkaritza eduki ahal izango du haien araubidearen arabera kide izateko eta parte hartzeko aukera ematen duten nazioarteko erakunde guztietan, eta bereziki hizkuntza, kultura, bake, giza eskubideen defentsa nahiz lankidetz, garapen iraunkor eta ingurumenarekin zerikusia dutenetan.

4. Atzerriko euskal etxeek onespren ofiziala izango dute eta funtsezko tresna izango dira Euskadiko Erkidegoaren eta atzerrian bizi diren euskal gizataldeetako kideen arteko loturei eusteko, eta baita komunitateok dauden herrialdeekin merkataritza, kultura, politika nahiz instituzioen arloko harremanak garatu eta bultzatzeko.

### **68. artikulua.- Nazioarteko itun eta hitzarmenak**

1. Espainiako gobernuak Estatutu Politiko honetan jasotako eskumenak aldatu edo mugatzea ekar dezakeen nazioarteko itun edo hitzarmenen bat gauzatzeko, alde zurretik euskal instituzio komunen baimena behar izango da.

2. Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuak garatuko dituen nazioarteko itun eta hitzarmenen negoziazioen garapenean parte hartuko du, horietan inplikatur dagoen heinean, eta baita mugen arloko legegintzako proiektuetan ere, Euskadiko Erkidegoarentzako interes berezikoak direnean.

3. Erkidegoaren eskurantz eta eskumenei buruzko gaiak direnean, Euskadiko Erkidegoak betearaziko ditu nazioarteko itun eta hitzarmenak.

## **Hirugarren kapitulua.- Garapenerako lankidetzak**

### **69. artikulua.- Elkartasuna eta garapenerako lankidetzak**

Euskadiko Erkidegoak garapen bidean diren herrialdeekiko elkartasun eta lankidetzako politika garatu ahal izango du bere kabuz, eta horretarako, beharrezko akordio eta programak abiaraziko ditu hartzaile izango diren herrialde eta eskualdeetan, edo gobernuz kanpoko erakunde eta instituzio publiko eta pribatuekin, lankidetzapolitikok eraginkorrak izango direla bermatzeko.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

1. Estatutu hau indarrean sartu eta gehienez ere sei hilabete igaro baino lehen, Euskadiko Erkidegoa, autogobernurako duen araubidearen arabera, dagozkion ahal, eginkizun eta zerbitzu guztiak materialki bere egin eta horiek osotasunean erabiltzen hasiko da, eta hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoak dagoeneko bere eginda dituen eskumenak gauzatzen jarraitu eta guztiz subrogatuta izanda.

2. Sei hilabeteko epe horretan, Eusko Jaurlaritzako eta Estatuako Gobernuo kide-kopuru berberaz osatutako transferentzien bitariko batzorde batek, aldi batean eta behin-betiko, hartu beharreko akordioak hartuko ditu zerbitzu publikoek jarraituko dutela bermatu eta Estatuaren titularitatekoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak eskualdatzeko, eta hori eginda, Euskadiko Erkidegoan integratuta edo erkidegoaren erabateko titularitatepean geratuko dira, autogobernuko araubidearen arabera. Hortik sor daitezkeen ondorioetarako, bitariko batzordearen aktak eta inbentario eta Estatuako agiri ofizialetarako egindako egiaztagiria nahikoa izango dira ondasunok kasuan kasuko errolda ofizialetan titulazioa jasota utzi eta inskribatzeko.

Aipatutako bitariko batzorde horrek Euskadiko Erkidegoaren eta Estatuaren arteko kasuan kasuko finantza-arloko akordioak izenpetu eta finantzion joan-etorria arautuko du.

Bitariko batzordean akordiorik ez badago ere, eskuratutako eskurantzak edo eskumenak gauzatu ahal izango ditu Euskadiko Erkidegoak, eta hori eskura dituen bitarteko eta finantza-baliabideen bidez, baina aukera izango du, gerora, Estatuari atzerapenaren ondorioz sortutako kalte eta galeren ordaina eskatzeko, Euskadiko Auzitegi Nagusira jota.

3. Estatutu hau indarrean sartzen denean, indarrean jarraituko du gaur egun Euskadiko Erkidegoan ezartzekoa den zuzenbideak, Erkidegoaren zuzenbide propioa ezartzen ez den artean, autogobernuko araubidez bat.

## **AZKEN XEDAPENA**

Estatutu Politiko honetan Euskadiko Erkidegoaren eta Espainiako Estatuaren arteko harreman politikorako eredu eta araubidea arautzen da, eta indarrean sartzen denean, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez Euskadiko Autonomia Estatutuan onartu zen ereduaren ondorengoa izango da eta hura ordezkaturko du.

---